

4 IRAKURGAI ÑIMINOA

OTTOLINE ESKOLARA DOA

Ottoline P.W. Huffedinck Dorreko 243 apartamentuan bizi zen. Eraikin hari denek “Piperbeltz Potea” deitzen zioten. Haren gurasoak bildumazaleak ziren, eta mundo osoan zehar bidaiatzen zuten.

Ia inoiz ez zeuden etxean, baina Ottolinek behar zuen guztia eduki zezan arduratzen ziren. Neska inoiz ez zegoen bakarrik eta, gainera Munroe jauna zeukan, bere lagunik onena, bizikide gisa.

1. Non bizi zen Ottoline?



2. Zer ziren haren gurasoak?

3. Non zeuden gurasoak?

4. Bakarrik bizi al zen Ottoline?

5. Nola zuen izena bere bizikideak?

